

## Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz

Aro post-digitalen dugun errealitateari buruzko zientzia fikzio, utopia eta distopiei buruzko zikloa, *Open Codes. We are data* erakusketaren esparruan sartuta



Programa publikoa /  
Programa público

## Cine abierto. Inventando un nuevo futuro

Ciclo de cine de ciencia ficción, utopías y distopías sobre nuestra realidad en la era post-digital, enmarcado en la exposición *Open Codes. We are data*



Filma / Película: *Mohai* (2010)

2019 **30** URRIA > 2020 **22** URTARRILA  
OCTUBRE > ENERO

Asteazkenak eta ostegunak / Miércoles y jueves



## ETORKIZUNA, ZIENTZIA ETA ARTE BISUALA

Gure Zinematekako *Zinema irekia. Etorkizun berria asmatzen* zinema garaikideko ziklo berriak leihobat zabaltzen du mundu distopikoetara, zinemak etorkizuna irudikatzen duen imajinatutako zientzia fikzio postapokaliptikoko eta estetika ziberpunk eta post-interneteko munduetara. Lan hauetako batzuk asko hurbiltzen dira XXI. mendean bizi dugun honetara; beste batzuk, berriz, zientzia-fikzio hutsa dira. Denean agertzen dira, gutxiago edo gehiago, teknifikazioa eta arlo digitala, maila sozialean, ekonomikoan eta politikoan gizartearen elementu gisa. Izan ere, hori izan zen ziklo hau programatzean izan genuen asmoa: aro digitaleko begirada artistikoa bilatzeko, zikloa 2020ko urtariraren 26ra arte Azkuna Zentroan ikusgai izango den *Open Codes. We are data* erakusketako parte baita.

Erakusketak gure bizimodua azpikoz gora jartzen ari diren teknologia disruptiboaren dimentsio artistikoak ikertzen ditu. Zinemako ziklo honek areago zabaltzen du begirada hori gaur egungo gaietara, ikus-entzunezko formatu desberdinetan etorkizunari, zientziari eta arte bisualei pultsua hartzen dieten gaietara.

Ziklo honen programazioan, Playtime Audiovisuales (Natalia Piñuel eta Enrique Piñuel) aritu da komisario-lanetan. Ikus-entzunezkoen ekoizpeneko eta zabalkuntzako plataforma hau berriaz espezializatuta dago zinema garaikiderik ausart eta berritzaileenean. Hiru hilabete hauetan, aldi berean izango ditugu *Zinema irekia. Etorkizun berria asmatzen* zikloa eta *Zinemaren historiako 50 haribitxi*. Aurtur abiarazitako azken ziklo honek jarraipena izango du 2020an 50 proposamen berriekin, ikusleek harrera bikaina egin baitiote.

*Zinematek* hiru hamarkadatik gorako historia du Bilbon, eta zinema klasikoko eta sorkuntza garaikideko programazio egonkorra du Alhóndigan. Gure ikus-entzunezko programazioaren oinarriko zutabeetako bat da. Baina ikus-entzunezko bestelako narraitibei begira ere jartzen gara, esaterako, hemen eta nazioartean egindako bideo-sorkuntzako proiektuak sustatzen dituen *BlideOtik* programaren bidez.

2020an, *BlideOtik* programak formatu berria izango du, idealdi publikoa egingo baitugu, bideoarte, bideo espermental, bideo dantza, animazio edo dokumental arloko lanak garatzeko ikus-entzunezkoak erabiltzen dituzten artistei eta bideo-sortzaileei zuzenduta. Azkuna Zentroan dituen balioekin bat egiten duten piezak hautatuko dira, beren narraitiban eta estetikan, sentsibilitate artistiko, kultural eta sozial garaikideko elementuak dituztenak.

## FUTURO, CIENCIA Y ARTE VISUAL

*Cine abierto. Inventando un nuevo futuro*, el nuevo ciclo de cine contemporáneo de nuestra *Zinemateka*, abre una ventana a los mundos distópicos, de ciencia ficción pos apolítica y estéticas cyberpunk y postinternet imaginados por el cine para representar el futuro. Muchos de estos trabajos se acercan bastante a lo que vivimos en el siglo XXI, otros se han quedado en eso, en ciencia ficción. En todas está presente, en mayor o menor medida, la tecnificación y lo digital como elemento transformador de la sociedad a nivel social, económico y político. Esa era nuestra intención a la hora de programar este ciclo: buscar la mirada artística de la era digital, porque forma parte de la exposición *Open Codes. We are data* que se puede ver en Azkuna Zentroa hasta el 26 de enero de 2020.

La exposición explora las dimensiones artísticas de las tecnologías disruptivas que están revolucionando nuestras formas de vida. El ciclo de cine amplía esta mirada hacia temas coetáneos que toman el pulso al futuro, a la ciencia y a las artes visuales en diversos formatos audiovisuales.

En la programación de este ciclo hemos contado con el comisariado de Playtime Audiovisuales (Natalia Piñuel y Enrique Piñuel), plataforma de producción y difusión audiovisual especializada en el cine contemporáneo más arriesgado e innovador. A lo largo de estos tres meses, *Cine abierto. Inventando un nuevo futuro* convivirá con el ciclo *50 joyas de la historia del cine* iniciado este año y que tendrá continuidad en 2020 con otras 50 propuestas, por la gran acogida que está teniendo por parte del público.

La *Zinemateka*, con más de tres décadas de historia en la ciudad, mantiene en la Alhóndiga una programación estable de cine clásico y creación más contemporánea. Es uno de los pilares básicos de nuestra programación audiovisual. Pero, también miramos a las nuevas narrativas audiovisuales a través de programas como *BlideOtik*, enfocado a la promoción de proyectos de videocreación generados en el contexto local e internacional.

*BlideOtik* tendrá en 2020 un nuevo formato, resultado de una convocatoria pública abierta a artistas y video-creadoras/es que tienen el audiovisual como medio para desarrollar trabajos en torno al videoarte, video experimental, video danza, animación o documental. Piezas alineadas con los valores de Azkuna Zentroa, que muestran, tanto en su narrativa como en su estética, sensibilidad artística, cultural y social con una vertiente contemporánea.

**Fernando Pérez**

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko Zuzendaria / Director de Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao

# ZINEMA IREKIA. ETORKIZUN BERRIA ASMATUZ

*Zinema irekia. Etorkizun berria asmatuz* aro post-digitalean dugun errealitateari buruzko zientzia fikzio, utopia eta distopiei buruzko zikloa da. Artelanen sorta bat, etorkizunaren inguruan gogoeta egiteko, era kolektiboan genero-ikuspegitik pentsatzeko. Orainetik abiatuta, beste mundu batzuk izan daitezkeela birpentsatzeko; baina, mundu horiek egungo gizartetik eratorriak izango direnez, kontzientzia eta jarrera kritikoa izan behar ditugu.

Hamar saiotan antolatutako ziklo honetan aurkezten diren lanetako zuzendari gehienak emakumeak dira, sentsibilizazio hori beharrezkoa delako, eta argi dugulako: 'the future is female'. Gaiak queer izaeratik lantzen dituzten filmak dira, zinema-saiakera eta aktibismo politikoa barnean hartuta. Arte garaikidearen parametroen barruan kokatuta dago, diziplina desberdinak era hibridatuko jarioan txertatuz, formalki arriskatuz eta proposamen bakoitza, azken batean, ikusleak berak osatuz.

Zikloa hasteko, klasiko modernoan saio bikoitz bat izango da, zientzia fikzioko generoaren baitan, [Chris Marker](#) zinemagile esperimentalaren lanekin. Ondoren, arte bisualetako [Regina de Miguel](#) artistaren lana protagonista duen saioa izango da.

Hirugarren saioan, Internet ondoko aroko sexu-praktiketan barneratuko gara, [Shu Lea Cheang](#) artista eta aktibista queer-aren eskutik; hurrengo jardunaldian, [Isa Willinger](#) zuzendariak maitasun erromantiko berriari eta harreman sozialei eskainitako begiradarekin osatuko da gai hori.

Zikloaren erdira iritsiko gara [Momu & No Es](#) kolektibo artistikoaren proposamen arriskatu eta jostagarriarekin: beren film laburren bilduma bat eskainiko dute, B serieko Sci-Fia, pop kultura, elektronikak, 3Da eta muntaia eta postprodukzio digitaleko geruza mordoak konbinatuta.

Ondoren, 'Afrofuturismo' korrante literarioa eta filosofikoa helduko da, mundua ikuspuntu dekolonial eta, horrenbestez, antipatriarkal

batetik birpentsatzeko bi artelan giltzarriekin: [Sun Ra](#) musikariak berak eta beretzat sortutako *Space is the Place* film luzea da bata, eta [The Otolith Group](#) taldearen *In the Year of the Quiet Sun* film laburra, bestea.

Zazpigarren saioan, omenaldia egingo diegu [Ursula K. Le Guin](#) idazleari eta haren mundu fantastikoei; horren ostean, gure aldi munta handien duen zuzendarietako bat iritsiko zaigu, [Lucille Hadzihailovic](#).

Zikloa bukatzeko, ez-fikzioko bi film luze izango ditugu, eta, horiekin, gogoeta egingo dugu orainaldiaz, etorriko dena ulertu ahal izateko. Lehenengoa [Jennifer Baichwalek](#) zuzendutako lana da, eta zikloko azken filma, berriz, [Maria Ruido](#) artista eta ikerlariak ondutakoa.

# CINE ABIERTO. INVENTANDO UN NUEVO FUTURO

*Cine abierto. Inventando un nuevo futuro* es un ciclo de ciencia ficción, utopías y distopías sobre nuestra realidad en la era post-digital. Una serie de obras donde reflexionar y pensar de forma colectiva y desde una perspectiva de género, el futuro. Desde 'el ahora', repensar que otros mundos son posibles, pero estos, derivarán de la sociedad actual, por lo cual, debemos tomar conciencia y una postura crítica.

Planteado en diez sesiones, el ciclo presenta obras con mayoría de directoras mujeres, porque esa visibilización resulta necesaria y porque tenemos claro que 'the future is female'. Películas que trabajan su temática desde lo queer, con presencia del cine-ensayo y el activismo político. Se encuentra, dentro de los parámetros del arte contemporáneo, integrando distintas disciplinas de manera fluida e híbrida, arriesgándose formalmente y siendo el propio público-espectador quien completa finalmente cada propuesta.

El ciclo arranca con una doble sesión de clásicos modernos, dentro del género de ciencia ficción, firmado por el cineasta experimental [Chris Marker](#), y continúa con la sesión protagonizada por la obra de la artista visual [Regina de Miguel](#).

En la tercera sesión, nos adentramos en las prácticas del sexo en la era post-internet a través de la artista y activista queer [Shu Lea Cheang](#), completándola en la siguiente jornada con una mirada hacia el nuevo amor romántico y las relaciones sociales, por [Isa Willinger](#).

Llegamos al ecuador del ciclo con la arriesgada y divertida propuesta del colectivo artístico [Momu & No Es](#), con una compilación de sus cortometrajes donde combinan, Sci-Fi de Serie B, cultura pop, electrónica, 3D y capas y capas de montaje y postproducción digital.

Seguimos con la corriente literaria y filosófica del 'Afrofuturismo' con dos obras clave para repensar el mundo desde una perspectiva decolonial y, por ende, antipatriarcal: el

largometraje *Space is the place* concebido por y para el músico [Sun Ra](#) y el cortometraje *In the year of the quiet sun* realizado por [The Otolith Group](#).

En la séptima sesión homenajeamos a la escritora, [Ursula K. Le Guin](#) y sus mundos fantásticos, siguiendo posteriormente con una de las directoras más relevantes de nuestro tiempo, [Lucille Hadzhihalilovic](#).

El ciclo concluye con dos largometrajes de no-ficción con los que reflexionar sobre el presente para comprender 'lo que vendrá'. El primero, dirigido por [Jennifer Baichwal](#) y la última, protagonizada por la artista e investigadora, [María Ruido](#).

## 1. SAIOA: CHRIS MARKER: SAIKERA-FILMAK PULTSUA HARTZEN DIO ETORKIZUNARI (ZIENTZIA FIKZIOKO KLASIKO-MODERNOA) / SESIÓN 1: CHRIS MARKER: EL FILM ENSAYO TOMA EL PULSO DEL FUTURO (CLÁSICO-MODERNO DE LA CIENCIA FICCIÓN)

---

**30** URRIA  
OCTUBRE  
Asteazkena / Miércoles  
OPEN SPACE.<sup>3</sup>  
ERAKUSKETA ARETOA /  
SALA DE EXPOSICIONES

19:00	<b>Zikloaren aurkezpena: Natalia Piñuel eta Enrique Piñuel komisarioak / Presentación del ciclo: la comisaria Natalia Piñuel y el comisario Enrique Piñuel</b> <b>LA JETEE (1962)</b> 28'. FR. Film-labur dokumentala / Cortometraje documental JBGA / VOSE
	<b>SANS SOLEIL (1983)</b> 100'. FR. Dokumentala / Documental. JBGA / VOSE

**31** URRIA  
OCTUBRE  
Osteguna / Jueves  
GOLEM ZINEMAK /  
CINES GOLEM<sup>1</sup>

17:00	<b>LA JETEE (1962)</b> 28'. FR. Film-labur dokumentala / Cortometraje documental JBGA / VOSE
	<b>SANS SOLEIL (1983)</b> 100'. FR. Dokumentala / Documental. JBGA / VOSE

## 2. SAIOA: ZIENTZIA ETA ARTE BISUALAK. REGINA DE MIGUELEN OBRA / SESIÓN 2: CIENCIA Y ARTES VISUALES. LA OBRA DE REGINA DE MIGUEL

---

**6** AZAROA  
NOVIEMBRE  
Asteazkena / Miércoles  
GOLEM ZINEMAK /  
CINES GOLEM<sup>1</sup>

19:30	<b>NOUVELLE SCIENCE VAGUE FICTION (2011)</b> 21'. ES. GB / VE
	<b>UNA HISTORIA NUNCA CONTADA DESDE ABAJO (2016)</b> 70'. ES. GB / VE

**7** AZAROA  
NOVIEMBRE  
Osteguna / Jueves  
GOLEM ZINEMAK /  
CINES GOLEM<sup>1</sup>

17:30	<b>NOUVELLE SCIENCE VAGUE FICTION (2011)</b> 21'. ES. GB / VE
	<b>UNA HISTORIA NUNCA CONTADA DESDE ABAJO (2016)</b> 70'. ES. GB / VE

## 3. SAIOA: CYBERSEXUA / SESIÓN 3: CYBERSEXO

**21** AZAROA  
NOVIEMBRE  
Osteguna / Jueves  
**BASTIDA ARETOA /  
SALA BASTIDA** <sup>2</sup>

19:30

**FLUIDØ (2017)**  
Ez da gomendagarria 16 urtetik beherakoentzat. / No recomendada a menores de 16 años.  
80'. DE. JBGA / VOSE

## 4. SAIOA: CYBER ERROMANTIZISMOA / SESIÓN 4: CYBER ROMANTICISMO

**27** AZAROA  
NOVIEMBRE  
Asteazkena / Miércoles  
**GOLEM ZINEMAK /  
CINES GOLEM** <sup>1</sup>

20:00

**HI, AI - LOVE STORIES FROM THE FUTURE (2019)**  
85'. DE. JBGA / VOSE

**28** AZAROA  
NOVIEMBRE  
Osteguna / Jueves  
**GOLEM ZINEMAK /  
CINES GOLEM** <sup>1</sup>

17:00

**HI, AI - LOVE STORIES FROM THE FUTURE (2019)**  
85'. DE. JBGA / VOSE

## 5. SAIOA: MOMU &amp; NO ES DUO ARTISTIKOARI ESKAINITAKO MONOGRAFIKOA: POST-INTERNET AROKO ISTORIOAK / SESIÓN 5: MONOGRÁFICO DEDICADO AL DUO ARTÍSTICO MOMU &amp; NO ES: HISTORIAS DE LA ERA POST-INTERNET

**4** ABENDUA  
DICIEMBRE  
Asteazkena / Miércoles  
**OPEN SPACE.** <sup>3</sup>  
**ERAKUSKETA ARETOA /  
SALA DE EXPOSICIONES**

20:00

**MOHAI (2010)**  
13'. NL. JB / VO

**THE SOFT MUD AND FAN BOY (2012)**  
16'. NL. GB / VE

**LIFE OF OUR PROGRESSIVE THINKERS (2013)**  
17'. NL. JBGA / VOSE

**GLOBAL WINDSHIELD, THE MUSICAL (2018)**  
19'. NL. JBGA / VOSE

<sup>1</sup> Sarrerak Golem zinemako txarteldegian eta golemes helbidean / Entradas en taquillas de Cines Golem y en golemes: **4,5€ [3,5€ Az Txartelarekin / Con Tarjeta Az]**

<sup>2</sup> Sarrerak Az Infon / Entradas en Az Info: **4,5€ [3,5€ Az Txartelarekin / Con Tarjeta Az]**

<sup>3</sup> Sarrera dohainik leku guztiak bete arte / Entrada libre hasta completar aforo

## 5. SAIOA: MOMU & NO ES DUO ARTISTIKOARI ESKAINITAKO MONOGRAFIKOA: POST-INTERNET AROKO ISTORIOAK / SESIÓN 5: MONOGRÁFICO DEDICADO AL DUO ARTÍSTICO MOMU & NO ES: HISTORIAS DE LA ERA POST-INTERNET

---

**5** ABENDUA  
DICIEMBRE

Osteguna / Jueves

OPEN SPACE. <sup>3</sup>

ERAKUSKETA ARETOA /  
SALA DE EXPOSICIONES

17:30	<b>MOHAI (2010)</b> 13'. NL. JB / VO
	<b>THE SOFT MUD AND FAN BOY (2012)</b> 16'. NL. GB / VE
	<b>LIFE OF OUR PROGRESSIVE THINKERS (2013)</b> 17'. NL. JBGA / VOSE
	<b>GLOBAL WINDSHIELD, THE MUSICAL (2018)</b> 19'. NL. JBGA / VOSE

## 6. SAIOA: AFROFUTURISMOAK: HISTORIA KOLONIALAZ ZIENTZIA FIKZIOTIK BERRIZ HAUSNARTU / SESIÓN 6: AFROFUTURISMOS: REPENSAR LA HISTORIA COLONIAL DESDE LA CIENCIA FICCIÓN

---

**11** ABENDUA  
DICIEMBRE

Asteazkena / Miércoles

GOLEM ZINEMAK /  
CINES GOLEM <sup>1</sup>

19:30	<b>SPACE IS THE PLACE (1974)</b> 85'. EEBB / EEUU. JBGA / VOSE
	<b>N THE YEAR OF THE QUIET SUN (2013)</b> 33'. GB. JBGA / VOSE

**12** ABENDUA  
DICIEMBRE

Osteguna / Jueves

GOLEM ZINEMAK /  
CINES GOLEM <sup>1</sup>

17:00	<b>SPACE IS THE PLACE (1974)</b> 85'. EEBB / EEUU. JBGA / VOSE
	<b>N THE YEAR OF THE QUIET SUN (2013)</b> 33'. GB. JBGA / VOSE



## 7. SAIOA: MUNDU FANTASTIKOA / SESIÓN 7: MUNDO FANTASTICO

**18** ABENDUA  
DICIEMBRE

Asteazkena / Miércoles

**GOLEM ZINEMAK /  
CINES GOLEM**<sup>1</sup>**19:45****LOS MUNDOS DE URSULA K. LE GUIN (2018)**  
65'. EEBB / EEUU. JBGA / VOSE**NOTRE DAME DES HORMONES (2014)**  
31'. FR. JBGA / VOSE**19** ABENDUA  
DICIEMBRE

Osteguna / Jueves

**GOLEM ZINEMAK /  
CINES GOLEM**<sup>1</sup>**17:30****LOS MUNDOS DE URSULA K. LE GUIN (2018)**  
65'. EEBB / EEUU. JBGA / VOSE**NOTRE DAME DES HORMONES (2014)**  
31'. FR. JBGA / VOSE

## 8. SAIOA: LUCILE HADZIHAILOVIC: DISTOPIA FEMINISTAK / SESIÓN 8: LUCILE HADZIHAILOVIC: DISTOPIAS FEMINISTAS

**8** URTARRILA  
ENERO

Asteazkena / Miércoles

**GOLEM ZINEMAK /  
CINES GOLEM**<sup>1</sup>**20:00****DE NATURA (2018)**  
6'. RO-FR. JB (Elkarrizketarik gabe) / VO (Sin diálogos)**EVOLUTION (2015)**  
81'. FR-BE-ES. JBGA / VOSE**9** URTARRILA  
ENERO

Osteguna / Jueves

**GOLEM ZINEMAK /  
CINES GOLEM**<sup>1</sup>**17:00****DE NATURA (2018)**  
6'. RO-FR. JB (Elkarrizketarik gabe) / VO (Sin diálogos)**EVOLUTION (2015)**  
81'. FR-BE-ES. JBGA / VOSE<sup>1</sup> Sarrerak Golem zinemako txarteldegian eta golem.es helbidean / Entradas en taquillas de Cines Golem y en golem.es: **4,5€ [3,5€ Az Txartelarekin / Con Tarjeta Az]**<sup>3</sup> Sarrera dohainik leku guztiak bete arte / Entrada libre hasta completar aforo

## EMANALDI BEREZIA / PASE ESPECIAL:

### 10. SAIOA: EGUNGO EZINEGONAK / SESIÓN 10: MALESTARES CONTEMPORÁNEOS

---

**11** URTARRILA  
ENERO  
Asteazkena / Miércoles  
**AUDITORIOA /**  
**AUDITORIO 1**

19:30

#### ESTADO DE MALESTAR (2018)

Filmeko soinu banda ondu zuen Edredón taldeak zuzenean jarriko dio soinua emanaldiari eta topaketa bat izango da zuzendariarekin. / La película será sonorizada en directo por el grupo Edredón, autores de la banda sonora de la película y contaremos con un encuentro con la directora.

65'. CA. GB / VE

### 9. SAIOA: LUR PLANETA / SESIÓN 9: PLANETA TIERRA

---

**15** URTARRILA  
ENERO  
Asteazkena / Miércoles  
**GOLEM ZINEMAK /**  
**CINES GOLEM 1**

19:30

#### ANTHROPOCENE: THE HUMAN EPOCH (2018)

87'. CA. JBGA / VOSE

**16** URTARRILA  
ENERO  
Osteguna / Jueves  
**GOLEM ZINEMAK /**  
**CINES GOLEM 1**

17:30

#### ANTHROPOCENE: THE HUMAN EPOCH (2018)

87'. CA. JBGA / VOSE

### 10. SAIOA: EGUNGO EZINEGONAK / SESIÓN 10: MALESTARES CONTEMPORÁNEOS

---

**22** URTARRILA  
ENERO  
Asteazkena / Miércoles  
**GOLEM ZINEMAK /**  
**CINES GOLEM 1**

20:00

#### ESTADO DE MALESTAR (2018)

65'. CA. GB / VE

**1. SAIOA: CHRIS MARKER: SAIKERA-FILMAK PULTSUA HARTZEN DIO ETORKIZUNARI (ZIENTZIA FIKZIOKO KLASIKO-MODERNOA) / SESIÓN 1: CHRIS MARKER: EL FILM ENSAYO TOMA EL PULSO DEL FUTURO (CLÁSICO-MODERNO DE LA CIENCIA FICCIÓN)**



### LA JETEE (1962)

28'. Frantzia / Francia. Film labur dokumentala / Cortometraje documental

Z/D-G: Chris Marker

A/R: H el ene Chatelain, Davos Hanich

Chris Marker-ek *La Jet e* filmarekin egin zuen nazioarteko jauzia film-zuzendari gisa. Saiakera-zinemako eta zientzia-fikzio post-apokaliptikoaren lan gorena da. Footage film bat, memoriak duen botereari buruzkoa, argazki finkoak soilik erabiliz kontatua. Gizon bat bere maitearen oroitzapena berreraikitzeko ahaleginean ari da, Hirugarren Mundu Gerrako garaietan. Zientzia-fikzio film berezia da, eta Terry Gilliam-en *12 Monkeys* ospetsuaren inspirazio-iturria izan zen.

Chris Marker dio el salto internacional como director de cine con *La Jet e*, obra cumbre del cine-ensayo y la ciencia ficci n pos apocal ptica. Pel cula footage, sobre el poder de la memoria, contada exclusivamente a trav s de fotos fijas, en la que un hombre trata de reconstruir el recuerdo de su amada, en tiempos de la Tercera Guerra Mundial. Se trata de un singular film de ciencia-ficci n que inspir  la famosa, *12 Monos*, de Terry Gilliam.



### SANS SOLEIL (1983)

100'. Frantzia / Francia. Dokumentala / Documental

Z/D-G: Chris Marker

Sans soleil filmak gairiditu egiten ditu zinema 'dokumentaltzat' jotzen zenak zituen mugak. Fikzioa ez den zinta zoragarri honetan, hausnarketa egiten da irudiaz eta memoriak, bidaiak-eguneroko gisa antolatuta. Emakume ezezagun batek Sandor Krasna kamerako operatzaileak bidalitako gutunak irakurtzen ditu. Horrek, bidaietako irudiak erregistratuz, galdera egiten dio bere buruari memoriak eta oroimenaren zereginaz, «oroimena ez baita ahanzturaren aurkakoa, aurrez aurrekoa baizik»-, bihotza taupadaka jartzen duten gauzen bere zerrenda eratzeko, Sei Sh nagon-en gisan.

Sans soleil supera los l mites de lo que se cono a como cine 'documental'. Una fascinante cinta de no-ficci n donde a modo de diario de viaje, reflexiona sobre la imagen y la memoria. Una mujer desconocida que lee las cartas remitidas por un operador de c mara, Sandor Krasna que a trav s del registro de las im genes de sus viajes se interroga sobre la memoria y la funci n del recuerdo, «que no es lo contrario del olvido, sino su opuesto», para conformar, como Sei Sh nagon, su particular lista de cosas que hacen latir el coraz n.

## 2. SAIOA: ZIENTZIA ETA ARTE BISUALAK. REGINA DE MIGUELEN OBRA / SESIÓN 2: CIENCIA Y ARTES VISUALES. LA OBRA DE REGINA DE MIGUEL



### NOUVELLE SCIENCE VAGUE FICTION (2011)

21'. Espainia / España

Z/D: Regina de Miguel



### UNA HISTORIA NUNCA CONTADA DESDE ABAJO (2016)

70'. Espainia / España

Z/D: Regina de Miguel

Pantaila bikoitzean egituraturako obra honetan batera agertzen dira mundu erreala eta fikziozkoa. Ezkerraldean, erreala agertzen da, zientziak ordezkaturia, egiaztatze moduko jakintza objektibo gisa. Hala, ibilbide bat egiten da arlo lurtarretik hasita, Cerknica (Eslovenia) lakuko harkaitzen azterketa geologikotik, Astroneroaino, soinu-uhinen bidez osorik ezin har daitezkeen objektu urrunak aztertzen diren tokiraino. Eskuinaldean, fikzioa, zientzia-fikzio agertzen da, eta, bertan, artxiboko hainbat irudi, munduaren amaiera izan daitezkeen aukeren deskribapen luze batekin. Bidaia sakon honen emaitza dagokigun filma bera da, gidatzen gaituen offeko ahots batek kontatua.

Estructurada a doble pantalla, en la obra convive el mundo real con el de la ficción. En el lado izquierdo, lo real, representado por la ciencia, como conocimiento objetivo y verificable. Ahí se hace un recorrido que parte de lo más terrenal, un estudio geológico de las rocas del lago Cerknica (Eslovenia) y que culminará en Astron donde se estudian objetos tan lejanos que no pueden ser alcanzados en su magnitud total más que por ondas sonoras. En el lado derecho, la ficción, la ciencia ficción, donde están presentes varias imágenes de archivo, con una larga descripción de posibles finales del mundo. El resultado de este intenso viaje es la película, que nos ocupa, narrada con una voz en off que nos va guiando.

Offeko ahots iradokitzale eta oniriko batek gidatzen gaitu hasierara, gauza guztien hastapenetara egindako bidaia batean barrena. Istoria berezi honen abiaburua Cybersyn edo Synco da, Stafford Beer ameslariak 1971-73 artean Txilen garatu zuen 'askatasunaren makina', Pinocheten estatu-kolpeak zapuztutakoa. 'Zientziaren tresnak herriari eman nahi zizkion' makina honen historiaren bidez, narratiba bat sortzen da, dokumental historiko, zientzia, politika fikzioa eta erretratu psikologikoaren artean.

Una sugerente y onírica voz en off nos guía a través de un viaje al principio, al principio de todo. El punto de partida de esta singular historia es el Cybersyn o Synco, una 'máquina de la libertad' desarrollada por el visionario Stafford Beer que tuvo lugar en Chile durante los años 1971-73 quedando frustrado debido al golpe de estado de Pinochet. A partir de la historia de esta máquina que proponía 'entregar las herramientas de la ciencia al pueblo' se plantea una narrativa entre el documental histórico, la ciencia, política ficción y el retrato psicológico.

### 3. SAIOA: CYBERSEXUA / SESIÓN 3: CYBERSEXO



A/R: J. Jackie Baier

#### FLUIDØ (2017)\*

80'. Alemania

Z/D: Shu Lea Cheang - A/R: Bishop Black, Kristina Marlen, William E. Morris, Alexander Geist, Aërea Negrot, Sadie Lune, Caprice Crawford, Antonio Onio

Taiwango multimedia zinemagile eta artista aktibista Shu Lea Cheangek Berlinen osorik filmatutako lan honek 2017. urtean izan zuen estreinaldia Berlinaleko Panorama atalean. Gorputz-isuriaren ekoizpenaren eta esplotazioaren kontrola lortzeko borroka du ardatz. Forma aldetik, opera orgiastikoa da. Gorputzen, sekrezioen, jardunen eta sexu-harremanen arnasarik gabeko txanda bat, maiz nagusi den ekonomiaren zerbitzuan egina. Drama ezohikoa da eta berariaz parapornografikoa. Cyberpunk eta postinterneteko estetikak dituen zientzia-fikziozko istorio bat, non kondizio sexualaren arteko mugak etengabe lausotzen diren.

Filmada integramente en Berlín por la cineasta multimedia y artista activista de Taiwan, Shu Lea Cheang, la película se estrenó en el año 2017 dentro de la sección Panorama de la Berlinale. Gira en torno a una lucha por ganar control sobre la producción y explotación de los fluidos corporales. Formalmente es una ópera orgiástica. Una ronda sin aliento de cuerpos, secreciones, actuaciones y actos sexuales a menudo realizados al servicio de una economía dominante. Un drama inusual y deliberadamente parapornográfico. Una historia de ciencia ficción con estéticas cyberpunk y postinternet, en el que los límites entre la condición sexual se difuminan constantemente.

### 4. SAIOA: CYBER ERROMANTIZISMOA / SESIÓN 4: CYBER ROMANTICISMO



#### HI, AI - LOVE STORIES FROM THE FUTURE (2019)

85'. Alemania

Z/D: Isa Willinger

Giza itxurako robotak maila berri batera iritsi dira, gure planetan eta bizitzetan. Spike Jonze-ren *Her* lanaren ildoan, baina esperientzia robotikako 5 urte gehiago izanda, Isa Willinger-ek beste urrats bat egiten du aurrera amodiozko istorio ospetsu honekin, ez baita fikzio dramatiko bat, baizik eta ez-fikzioaren esparrutik eraikitako istorioen sail bat. Behin espekulazio hutsa izan zen guztia orain errealitatea da.

Los robots humanoides han llegado a un nuevo nivel, en nuestro viejo planeta y en nuestras vidas. En la línea de *Her* de Spike Jonze, pero con 5 años más de experiencia robótica, la directora Isa Willinger da un paso más allá a esa famosa historia de amor, ya que no estamos ante una ficción dramática, si no ante una serie de historias construidas desde el campo de la no-ficción. Todo lo que una vez fue puramente especulación, ahora es la realidad.

5. SAIOA: MOMU & NO ES DUO ARTISTIKOARI ESKAINITAKO MONOGRAFIKOA: POST-INTERNET AROKO ISTORIOAK /  
SESIÓN 5: MONOGRÁFICO DEDICADO AL DÚO ARTÍSTICO MOMU & NO ES: HISTORIAS DE LA ERA POST-INTERNET




### MOHAI (2010)

13'. Holanda

Z/D: MOMU & NO ES

Nane eta Carina aski pertsonaia bitxi eta outsiders-ak dira, eta, hutsik dagoen beren existentzia hobeto jasateko, totem inka bat erosten dute bazar txiki batean, 'Mohai' deituko dena. Etxera eramateko bidean, era askotako gorabehera zoroak izango dituzte, eta, hala, une eta egoera surrealistak eta dibertigarriak sortuko dira. Elkarrizketa absurdo eta solte batzuk izango dira, bata bestearen atzetik, eta horietan protagonistek zalantzan jarriko dute Mohai haien ondoan izatea eta etorkizunean zoriontasuna lortzea. Nola sartuko da totema haien bizitzetan?

Nane y Carina son dos personajes un tanto extravagantes y outsiders, que tratan de sobrellevar su vacía existencia con la incorporación de un tótem Inca que compran en un pequeño bazar e identifican como 'Mohai'. Durante su viaje de traslado a casa suceden diversas y locas peripecias que dan lugar a momentos y situaciones surrealistas y divertidas. Se suceden algunos diálogos absurdos, sueltos, donde las protagonistas se cuestionan la conexión y futura felicidad junto a ellas del Mohai. ¿Cómo encajará él realmente en sus vidas?



### THE SOFT MUD AND FAN BOY (2012)

16'. Holanda

Z/D: MOMU & NO ES

Musika elektronikoaren aitzindaria den Silverio artista ospetsuaren zale gazte bat -musika elektroniko-dance-primitibo gisa ulertua Latinoamerika osoan-. Aldi berean, Vladimir-ek (Fanboy) harreman bat du Casio auzokoarekin, idolo musikalekiko amodioa bereizgarri duena; izan ere, «jende guztiak jarraitu behar dio beten bati». Gazteen soap-opera baten gisa, hiruren artean sortzen diren loturak agertzen dira, gurtze-uneak eta asperraldiak, baita hiruren arteko afektuak ere, Vladimirrek ekoizten dituen objektuen, kanta-eta bideoklip-zatien bidez.

Un joven fan del famoso artista Silverio, pionero de la música electrónica, entendida como electrónica-dance-primitiva en toda América Latina. Al mismo tiempo, Vladimir (Fanboy) mantiene una relación caracterizada por el amor a sus ídolos musicales junto a su vecino Casio y es que «todo el mundo necesita alguien a quien seguir». La trama a la manera de una soap-opera juvenil, sigue las conexiones que se establecen entre los tres, los momentos de adoración, hartazgo, pero también los afectos entre los tres representado por los objetos que produce Vladimir, fragmentos de canciones y videoclips.

**5. SAIOA: MOMU & NO ES DUO ARTISTIKOARI ESKAINITAKO MONOGRAFIKOA: POST-INTERNET AROKO ISTORIOAK /  
SESIÓN 5: MONOGRÁFICO DEDICADO AL DÚO ARTÍSTICO MOMU & NO ES: HISTORIAS DE LA ERA POST-INTERNET**



**LIFE OF OUR PROGRESSIVE  
THINKERS (2013)**

17'. Holanda  
Z/D: MOMU & NO ES



**GLOBAL WINDSHIELD, THE MUSICAL  
(2018)**

19'. Holanda  
Z/D: MOMU & NO ES

Etorkizunean gaude, aski etorkizun hurbilean, familiarrean ere bai. Offeko ahots batek egungo egoeran eragina izan duten gertakizunak deskribatzen ditu. Telebistako dokumental edo B Serieko sci-fi film batean bezala, Momu & No Es-ek Robert Haag eta Carlos Blanco pentsalari progresisten lekukotasunak aurkezten dizkigu, Tovar-en (Kainoi Handian) bildu aurrekoko minutukoak; hortik sortu zen bioteknologia eta nanoteknologiaren garapena, eta, beraz, humanitatearen eboluzio-prozesuko bigarren maila.

Estamos en el futuro, un futuro relativamente cercano, incluso familiar. Una voz en off describe el flujo de los acontecimientos que han afectado a la actual situación. A la manera de un documental televisivo o una película Sci-Fi de Serie B, Momu & No Es, presentan los testimonios de los pensadores progresistas Robert Haag y Carlos Blanco, justo minutos antes de que ambos se reunieran en el Tovar (Gran Cañón) dando lugar al desarrollo de la biotecnología y la nanotecnología y, en consecuencia, al segundo nivel del proceso evolutivo de la humanidad.

Obra osoa eraikita dago autobide batetik doan autoko haizetakoaren atzetik abiatzen den irudi sintetikoarekin. Hortik aurrera irudiak, bideoak, 3D animazioa eta jatorrizko soinu-banda kateatzen dira, eta bidai mental bat birsortzen dute, Interneteko irudiak kontsumitzean izaten dugunaren antzekoa den kontenplazio-egoera sortu nahian. «Proiektua asmatu genuenetik, ideia argia genuen: ikuslea izatea protagonista, eta sentitu ahal izatea fisikoki Internet barruan dagoela eta pantaila barrutik zeharkatzen duela», egileek diotenez.

Una obra enteramente construida con imagen sintética que arranca, tras el parabrisas de un coche que circula por una autopista. A partir de ahí, la concatenación de imágenes, vídeos, animación 3D y una banda sonora original, recrean un viaje mental que pretende generar un estado de contemplación y aceleración similar al que tenemos cuando consumimos imágenes en internet. «Desde que concebimos el proyecto teníamos una idea clara: que el espectador fuera el protagonista y que pudiera llegar a sentir que se encuentra físicamente dentro de Internet y que lo recorre desde dentro de la pantalla», dicen sus autoras.

**6. SAIOA: AFROFUTURISMOAK: HISTORIA KOLONIALAZ ZIENTZIA FIKZIOTIK BERRIZ HAUSNARTU / SESIÓN 6: AFROFUTURISMOS: REPENSAR LA HISTORIA COLONIAL DESDE LA CIENCIA FICCIÓN**



**SPACE IS THE PLACE (1974)**

85'. Estatu Batuak / Estados Unidos

Z/D: John Coney

Idazlea, protagonista eta jatorrizko musikaren egilea /  
Escrita, protagonizada y música original: Sun Ra



**IN THE YEAR OF THE QUIET SUN  
(2013)**

33'. Britania Handia / Gran Bretaña

Z/D: The Otolith Group

Jazz musikak bultzatutako ontzi hori batean espazioa zeharkatu ondoren, Sun Ra Lurrera hurbiltzen da. Planeta berri baten bila dabil, arraza beltzak aurrera egin ahal izan dezan bertan, eta ideia horrekin lurreratzen da Kalifornian. Hor, baina, superbilau bat topatuko du, Ray Johnson-ek interpretatutako Overseer, biztanle beltzak esplotatzen dituen NASArekin eta FBIrekin batera.

Después de atravesar el espacio en una nave amarilla propulsada por música de jazz, Sun Ra se aproxima a la Tierra. Busca un nuevo planeta en donde la raza negra pueda prosperar y con esa misión aterriza en California. Allí se encuentra con un supervillano, Overseer, interpretado por Ray Johnson, que explota a la población negra, en alianza con la NASA y el FBI.

Saiakera film honek hamaika urtez behin eguzkiaren izaten den gertakariaren izena hartzen du: eguzkiaren azalera behar adina hozten da, behatokiak eguzkiaren jarduna aztertu ahal izan dezaten. 1964ko azarotik 1965eko azarora arte, munduko herrialdeek –orain dela gutxi independentzia eskuratutako estatu afrikar batzuek ere ba– zigiluak jaulki zituzten eguzkiaren azalera ikertzera bidalitako lehen espedizio zientifikoaren oroitzapena ospatzeko. Nagusitasun historiografikoaren aurrean, ikertzaileen eta artisten The Otolith Group taldeak herrialde afrikarrentzako independentziaren kulturaren sorrera hartzen du ardatz.

Este film ensayo, toma su nombre del fenómeno solar que ocurre cada once años cuando la superficie del sol se enfría lo suficiente como para permitir que los observatorios estudien la actividad solar. Desde noviembre de 1964 a noviembre de 1965, los países del mundo, incluidos muchos estados africanos recientemente independientes, emitieron sellos para conmemorar la primera expedición científica para estudiar la superficie del sol. El colectivo de investigadores y artistas, The Otolith Group frente al dominio historiográfico, se centran en la emergencia de una cultura de la independencia para los pueblos africanos.



## 7. SAIOA: MUNDU FANTASTIKOA / SESIÓN 7: MUNDO FANTASTICO



### LOS MUNDOS DE URSULA K. LE GUIN (2018)

65'. Estatu Batuak / Estados Unidos

Z/D: Arwen Curry



### NOTRE DAME DES HORMONES (2014)

31'. Frantzia / Francia. Film labur dokumentala  
/ Cortometraje documental

Z/D: Bertrand Mandico

A/R: Elina Löwensohn, Nathalie Richard, Michel Piccoli

Ursula K. Le Guinen munduak da idazlearen bizitza biltzen duen lehen film luze dokumentala; bidaia bat egiten du haren ibilbidean eta munduetan -erreal eta fantastikoetan- barrena. Ikusleek bat egiten dute egileak bere burua aurkitzeko egindako bidaia intimo honekin, eta storytelling-ak dituen ahalmen eraldatzaileetan sakontzen dute, horren bidez ate berriak zabaltzen baitzaizkio irudimenari, orainaren geldialdietatik harantz eraman, eta erabat berria den horretan sartuko gaituztenak.

Los mundos de Ursula K. Le Guin, es el primer largometraje documental que recoge la vida de la autora; un viaje a través de su carrera y sus mundos, tanto reales como fantásticos. Los espectadores se unen en un viaje íntimo y de autodescubrimiento y ahondan en las capacidades transformadoras del storytelling, a través del cual se van abriendo nuevas puertas para la imaginación que nos trasladan más allá de los estancamientos del presente y nos abren a lo radicalmente nuevo.

Ursula K. Le Guin idazlearen eleberrri batetik aterea bezala, fantasia hau agertzen da, gure garaiko zinemagilerik ezohikoenetako baten –Bertrand Mandicoren– eskutik. Natura jori bete-betean kokatutako landetxe batean, bi emakumezko aktore, eta ‘Gauzarekin’ –megapezoi jostalari edo falo txiki bat duen eta zezelka egiten duen izaki iletu batekin– duten desirako, obsesioko eta zaintzako harremana, eta, orobat, harekiko topaketa horrek haien arteko harremanetan duen eragina, muturreko borroka bat sortuko baita ‘Gauzaz’ jabetzeko.

Como sacada de una novela de la escritora Ursula K. LeGuin, aparece esta fantasía firmada por uno de los cineastas más atípicos de nuestro tiempo, Bertrand Mandico. Dos actrices en una casa de campo situada en plena y desbordante naturaleza y la relación de deseo, obsesión y cuidados que establecen con ‘La Cosa’ un ente peludo, balbucente dotado de un jugueterón megapezón o pequeño falo, y cómo ese encuentro afecta a las relaciones entre ellas, introduciendo una pugna radical por apropiarse del ‘La Cosa’.

## 8. SAIOA: LUCILLE HADZIHAILOVIC: DISTOPIA FEMINISTAK / SESIÓN 8: LUCILLE HADZIHAILOVIC: DISTOPÍAS FEMINISTAS

Ursula K. Le Guin idazlearen iritziz, fikzioak bere baitan dauka aldatzeko ahalmen bat, errealtatean eragitekoa; buru-gogoak irekitzeko, gure pentsamenduak aldarazteko eta errealtatean ulertzeko aukera berri ugari eskaintzeko indarrari zor dio ahal hori. Fikzioari esker, 'esnatu' egiten gara. Sarrerako azalpen honek Lucille Hadzihaililovic zinemagileari eskainitako saioaren atariko moduan balio digu.

Para la escritora Ursula K. LeGuin, la ficción conlleva en sí mismo un poder para cambiar, para revertir la realidad, gracias a su fuerza para abrir mentes, cambiar nuestros pensamientos y ofrecernos numerosas posibilidades inéditas para comprender la realidad. Gracias a la ficción, 'despertamos'. Esta introducción nos sirve como preámbulo para la sesión dedicada a la cineasta, Lucille Hadzihaililovic.



### DE NATURA (2018)

6'. Errumania, Frantzia / Rumania, Francia

Z/D: Lucille Hadzihaililovic

A/R: Maria Manta, Mihaela Manta



### EVOLUTION (2015)

81'. Frantzia, Belgika, Espainia / Francia, Bélgica, España

Z/D: Lucille Hadzihaililovic

A/R: Max Brebant, Roxane Duran, Julie-Marie Parmentier

*De Natura* bat-bateko poema bat da, bi neskatok naturaren erdian egindako pasiera lasai eta alaia, helduen begiradatik aldentuta. Baina, une batean, alaitasuna desagertzen hasiko da arian-arian eta amets-irudia nostalgia bihurtuko da. Zuzendariaren filmografian ohikoak diren gaiak ageri dira film labur honetan, hala nola haurtzarora, heldu bihurtzeari diogun beldurra eta gainezka ageri den natura. Irudi eder onirikoz jositako filma bada ere, ikusi ostean sentsazio bitxia, deserosoa eragiten du.

*De Natura* es un poema improvisado, un apacible y alegre paseo de dos niñas en mitad de la naturaleza, lejos de los ojos de los mayores. Pero entonces, la alegría empieza a desaparecer gradualmente y la ensoñación se convierte en nostalgia. Temas recurrentes en la filmografía de la directora, como la infancia, el miedo a hacernos adultos y una naturaleza desbordada aparecen en este cortometraje repleto de imágenes bellas y oníricas pero que dejan una sensación extraña, incómoda, después del visionado.

Itsaso ondoko urbanizazio batean amarekin bizi da 11 urteko Nikolas. Erietxea da jarduera-zentro bakarra han. Esperimentu mediko bitxiak egiten dizkiete herriko ume guztiei, eboluzioko etapak atzekoz aurrera iraultzeko asmoz. Ingurune arotz batean murgiltzeko esperientzia bat da, espezi-  
men biologiko moduan gure eboluzio-diskurtsoa zuzentzen duten arauak deseraikitzen dituena. Film ausarta da, Lucilieren zinema osoa bezala, eta deserosoa gerta daiteke, beste mundu eta izan litezkeen beste agertoki batzuk irudikatzean, normatibitate heteropatriarkaletik kanpo.

Nicolas, de 11 años, vive con su madre en una urbanización al lado del mar. El único centro de actividad es el hospital. Allí, todos los chicos del pueblo son objetos de extraños experimentos médicos que intentan invertir las etapas de la evolución. Supone una experiencia inmersiva en un entorno extraño que deconstruye las normas que rigen nuestro discurso evolutivo como especímenes biológicos. Una película valiente, como todo el cine de Lucile, que puede resultar incómoda al imaginar otros mundos, otros posibles escenarios fuera de la normatividad heteropatriarcal.

## 9. SAIOA: LUR PLANETA / SESIÓN 9: PLANETA TIERRA



## ANTHROPOCENE: THE HUMAN EPOCH (2018)

87'. Kanada / Canadá

Z/D: Jennifer Baichwal, Nicholas de Pencier, Edward Burtynsky

Industria iraultzaz geroztik, Homo Sapiens izeneko gure espeziea bihurtu da Lurreko ekosistemaren indar eraldatzaile handiena. Praktika kapitalisten, ikatzaren eta petrolioaren kulturen, eta ustiatzeko baliabidezko ekosistema aldatzearen eraginez, animaliak eta landareak boladaka desagertu dira ugari, eta berotze globala gero eta handiagoa da. Nola gertatu ahal izan da?

Edward Burtynsky argazkilaria entzutetsuaren, eta Jennifer Baichwal eta Nicholas de Pencier zuzendari sarituen arteko elkarlanetik sortutako hirugarren filma da, *Manufactured Landscapes* (2006) eta *Watermark* (2013) pelikulen ondokoa. Toronto, Sundance eta Berlingo jaialdietan aurkeztu da.

Desde la Revolución Industrial, nuestra especie, el Homo Sapiens, se ha convertido en la mayor fuerza transformadora del ecosistema terrestre. Las prácticas capitalistas, las culturas del carbón y el petróleo y el cambio del ecosistema como recurso explotable, han dado lugar a una oleada de extinciones de animales y vegetales y al progresivo calentamiento global. ¿Cómo pudo ocurrir?

Tercera película creada en colaboración entre el reconocido fotógrafo Edward Burtynsky y los premiados directores Jennifer Baichwal y Nicholas de Pencier, tras *Manufactured Landscapes* (2006) y *Watermark* (2013). Ha sido presentada en los Festivales de Toronto, Sundance y Berlín.

## 10. SAIOA: EGUNGO EZINEGONAK / SESIÓN 10: MALESTARES CONTEMPORÁNEOS



## ESTADO DE MALESTAR (2018)

65'. Kanada / Canadá

Z/: María Ruido

M: Edredón

María Ruido zinemagile artistak saiakera bisual bat proposatu du, errealismo kapitalistaren garaian sintomatologia sozialaren eta sufrimendu psikikoaren inguruan. Proiektuaren oinarri gisa, Mark Fisher, Franco Berardi eta Santiago López Petiten testuak erabili ditu Mariak, bai eta filosofoekin, psikiatrekin eta erasandako edo diagnostikatutako pertsonekin izandako elkarrizketak ere, batik bat Madrigo 'InsPiradas' aktibista kolektibokoekin izandakoak.

Pelikula zikloaren barruan proposatu da, bizi dugun errealitate kapitalistan norbanakoaren oraingo egoeraren aurrean egindako gogoeta gisa, eta etortzekoa den aro postdigitaleko gizarte berri batera iristeko eraikuntza aldi berean 'itxaropentsu' bezala.

La cineasta y artista, María Ruido propone un ensayo visual sobre la sintomatología social y el sufrimiento psíquico en tiempos del realismo capitalista. Para el proyecto, maria ha partido de textos de Mark Fisher, Franco Berardi y Santiago López Petit, así como de conversaciones con filósofos, psiquiatras y personas afectadas o diagnosticadas, especialmente con el colectivo de activistas 'InsPiradas' de Madrid.

La película se plantea dentro del ciclo como una reflexión ante la actual situación del individuo en nuestra realidad capitalista y una construcción a su vez 'esperanzadora' hacia una nueva sociedad de la era posdigital, que está por venir.

Urt.arrilak 11: Soinu banda zuzenean eta topaketa zuzendariarekin / 11 enero: Banda sonora en directo y contaremos encuentro con la directora.

## SARRERAK (IKUSI EGITARAU) / ENTRADAS (VER PROGRAMA)

**4,5€ [3,5€ Az Txartelarekin]**

Golem Zinemak eta Auditorioa. Sarreraren salmenta: zinemako txarteldegian eta golem.es  
Bastida Aretoa. Sarreraren salmenta: Az Info

Open Space. Erakusketa Aretoa: sarrera dohainik leku guztiak bete arte

**4,5€ [3,5€ con Tarjeta Az ]**

Cines Golem y Auditorio. Venta de entradas: taquillas del cine y golem.es  
Sala Bastida. Venta de entradas: Az Info

Open Space. Sala de Exposiciones: entrada libre hasta completar aforo

## INFORMAZIO ERABILGARRIA / INFORMACIÓN ÚTIL

- Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke. Informazio gehiago: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)
  - Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesedez eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartel-lehiatilan ilarak saihesteko.
  - Filma ikusten ari diren pertsonekin begirunez jokatzeko, debekatuta dago aretora sartzea proiektzioa hasi ondoren.
  - Behar bada aldaketak egin beharko ditugu programazioan, gurekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik. Aldaketaren bat egin behar badugu, gure web orrian jakinaraziko dizuegu: [azkunazentroa.es](http://azkunazentroa.es)
  - Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen, pentsa ezazu ingurumenaren inguruan duzun erantzukizunarekin eta konpromisoarekin. Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste pertsona batzuek ikus dezaten.
- 
- La programación de Zinemateka está sujeta a cambios de última hora. Más información: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)
  - La sala de cine se abrirá al público 15 minutos antes de la proyección de la película. Se ruega a los espectadores y espectadoras que acudan con unos minutos de antelación para evitar colas en taquilla.
  - Por respeto al resto de personas que ya están viendo la película, no se puede acceder a la sala cuando haya empezado la proyección.
  - Es posible que tengamos que hacer cambios en la programación por causas ajenas a nuestra voluntad. Si tenemos que realizar cualquier modificación os lo comunicaremos en nuestra página web [azkunazentroa.es](http://azkunazentroa.es)
  - Antes de llevarte este folleto, piensa en tu responsabilidad y compromiso con el medio ambiente. Si no lo vas a usar, déjalo para que otras personas puedan verlo.

## LABURDURAK / ABREVIATURAS

**A/F:** Argazkia / Fotografía

**A/R:** Aktoreak / Reparto

**G:** Gidoia / Guión

**GB/VE.:** Gaztelaniako Bertsioa / Versión en Castellano

**JB/VO:** Jatorrizko Bertsioa / Versión Original

**JBG/VOES:** Jatorrizko Bertsioa Gaztelaniaz / Versión Original en Castellano

**JBGA/VOSE:** Jatorrizko Bertsioa Gaztelaniaz Azpiztitulata / Versión Original con Subtítulos en Castellano

**M:** Musika / Música

**Z/D:** Zuzendaria / Director



Gure jardueretara iristea errazteko nahiz jardueraz entzumen-gaitasun hobez gozatzeko laguntza teknikoa behar izanez gero, eska iezaguzu Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao espazioa irisgarria da pertsona guztientzat.

Si necesitas alguna ayuda técnica que te facilite el acceso a nuestras actividades, o para disfrutar de la actividad con mejor capacidad auditiva, pidenoslo. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao es un espacio accesible para todas las personas.

Gure programazioari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, jar zaitetz harremanetan Az-rekin / Si quieres recibir información de nuestra programación comunícate con Az:

**azkunazentroa.eus**

info@azkunazentroa.eus

PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO

944 014 014



ZINEMATEKAN ERE / TAMBIÉN EN ZINEMATEKA:

# Zinemaren historiako 50 harribitxi

Azken denboretako zinemarik  
onenaren zeharkako  
berrikusketa.

---

## 50 joyas de la historia del cine


Un repaso transversal a lo  
mejor del cine de los últimos  
tiempos.



PROGRAMAREN LAUGARREN PARTEA / CUARTA PARTE DEL PROGRAMA

2019 **30** URRIA  
OCTUBRE > 2020 **23** URTARRILA  
ENERO

Asteazkenak eta ostegunak / Miércoles y jueves



Filma / Pelicula: *2001: A space odyssey* (1968)

+ info:  
Zikloaren liburuxkan eta azkunazentroa.eus  
Folleto del ciclo y azkunazentroa.eus

**B**

**Bilbao**

**gizartea eta kultura garaikidea  
sociedad y cultura contemporánea**

**AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO**

[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)